

## FAQS

### 1- Nork du bidaltzen ditudan datuekiko sarbidea?

Bidaltzen dituzun datuetara bakarrik iritsi ahal izango dira honako hauek:

- BISaren arduraduna.
- Datuak babesteko ordezkaria.
- Giza Baliabideen arduraduna (jakinarazitako gertakariei buruzko diziplina-neurriak hartzeko beharrezkoa bada).
- Zerbitzu juridikoen arduraduna (jakinarazitako gertakariei buruzko legezko neurriak hartu behar badira).

Ikerketak beste organo batzuetako pertsonekin informazioa partekatzea eskatzen badu, modu konfidentzian egingo da (anonimotasunaren edo pseudoanonimotasunaren bidez). Inola ere ezin izango da informatzailea identifikatu.

### 2- Zer datu pertsonal bil ditzake BISK?

Ikerketa egiteko beharrezkoak direnak baino ez. Prozedurarako garrantzitsuak ez diren datuak ezabatu egingo dira.

### 3 - Zenbat denboraz gorde daitezke BISn jasotako datuak?

2/2023 Legea betez, behar den eta neurrizko denboran.

- Datuak ikerketa hastea erabaki arte gordeko dira.
- Datuak ezabatu egingo dira egiazkoak ez direla egiaztatzen bada.
- Datuak ezabatu egingo dira jakinarazpena egin eta 3 hilabete igaro ondoren ikerketa hasten ez bada. Anonimizatuta mantendu ahal izango dira, sistemaren funtzionamenduaren ebidentzia uzteko.
- Egiazkotasunik eza delitu penala bada, prozedura judizialak irauten duen bitartean gordeko dira.
- Datuak ez dira inoiz 10 urte baino gehiago gordeko.

### 4-Ez dut aurkitzen jarraipen-arlor sartzeko eman zidaten gakoa, nola berreskura dezaket?

Segurtasuna eta konfidentziasuna direla eta, ezin da gakoa berreskuratu. Beraz, beste komunikazio bat bidali beharko diguzu gertatutakoa azaltzeko, gai bera dela jakin dezagun. Horrela sarbide-gako berri bat lortuko duzu, eta guk barruan zure aurreko komunikazioarekiko erreferentzia egingo dugu.

### 5.- Bidali berri dut informazio bat kanal elektronikotik, zenbat denbora itxaron beharko dut emaitza jakiteko?

Zure komunikazioa aztertu ondoren jarraitu beharreko bidea zein izango den jakinaraziko dizugu. Ikerketa bat hasten bada aurreikusitako amaiera-data jakinaraziko dizugu. Epe hori gehienez 3 hilabetekoa izango da, zure jakinarazpenetik zenbatzen hasita, edo 6 hilabetekoa, ikerketa konplexua bada. Ikerketa amaitzerakoan emaitza jasoko duzu.

#### **6-Zergatik salatu behar dut zerbait?**

Izan ere zure informazioak aukera ematen digulako integritate- eta betetze-helburuen aurkako Durangoko Udalaren edozein jokabide hautemateko eta ezabatzeko.

#### **7- Salaketa aurkezten badut identifikatu egingo naute?**

EZ. Informazioa bidaltzeko inoiz ez zaizu eskatuko identifikatzeko. Modu anonimoan egin dezakezu, eta zure datuak ematea erabakitzen baduzu, horiek sistemaren kudeatzaileek baino ez dituzte ezagutuko, eta informazio hori ez zaie inola ere eragindako pertsonari edo pertsonari emango.

#### **8- Jar dezaket salaketa bat errepresaliengatik?**

BAI. Komunikazio bat egiteagatik errepresaliarik jasan izan bazenu, arau-hauste administratibo oso larria izan liteke Informatzailea Babesteko Legearen arabera, eta, beraz, salaketa jar dezakezu, bai gure barne-kanalen bidez, bai zuzenean Agintaritza Independentearen kanpo-kanalaren bidez.